

**1/2019 AKTA**  
**NAFARROAKO UDAL ETA KONTZEJUEK FEDERAZIOAREN BATZORDE BETEARAZLEAK OTSAILAREN**  
**12an EGINDAKO BILERA**

**BERTARATUAK:**

**MAHAIBURUA:**

Pablo Azcona Molinet jn., *Lodosako alkatea*.

**1. PRESIDENTEORDEA:**

Raquel Garbayo Berdonces and., *Cintruénigoko alkatea*.

**2. PRESIDENTEORDEA:**

Jesús M<sup>a</sup> Rodríguez Gómez jn., *Ribaforadako alkatea*.

**MAHAIKIDEAK:**

Unai Laco Goñi jn., *Agoizko alkatea*.

Karmele Marañón Chasco and., *Arbizuko alkatea*.

Javier Albizu Sanz jn., *Artazuko alkatea*.

D. Ángel Obanos Galar, *Artikako Kontzejuko burua*.

Ezequiel Martín Muxika jn., *Atezko alkatea*.

Nieves Recalde Zaratiegui and., *Etxagueko Kontzejuko burua*.

Alfonso Etxeberria Goñi jn., *Eguesibarko alkatea*.

María Vicenta Goñi Azanza and., *Gesalazko alkatea*.

Ángel Navallas Echarte jn., *Zangozako alkatea*.

Mario Fabo Calero jn., *Martzillako alkatea*.

Arturo Goldaracena Asa jn., *Tafallako alkatea*.

Cruz Moriones Uriz jn., *Ustaizeko Kontzejuko burua*.

Yolanda González García and., *Vianako alkatea*.

**Ezin etorria adierazi dute:**

Luis Alfonso Potestad Tellechea jn., *Aurizko alkatea*.

Koldo Leoz Garcandia jn., *Lizarrako alkatea*.

Joseba Asirón Saez jn., *Iruñeko alkatea*.

Eneko Larrarte Huguet jn., *Tuterako alkatea*.

**IDAZKARIA:**

Berta Enrique Cornago and.

Iruñean, bi mila eta hemeretziko otsailaren hamabian, arratsaldeko bostetan, bigarren deialdian, aldamenean adierazitakoak bildu dira Nafarroako Udalen eta Kontzejuek Federazioaren egoitzan (Tutera kalea, 20, 3. solairua, Iruña), Batzorde Betearazleko kideak baitira. Bilkuraren buru Pablo Azcona Molinet jn. aritu da, eta idazkari, berriz, Berta Enrique Cornago and. Hona hemen

**GAI-ZERRENTA**

- 1º.- Aurreko bilkuraren akta onestea.
- 2º.- Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.
- 3º.- Ordezkariek izendatzea sektoreko batzordeetan.
- 4º.- Hiri eremuak berreskuratzeko deialdia.
- 5º.- Langileen enplegu baldintzak 2019rako.
- 6º.- Lankidetzarako esparru hitzarmena, zergari buruzko informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko zergaren kudeaketan eta ikuskapenean Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako toki entitateen artean.
- 7º.- Lankidetzaren hitzarmena, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta NUKFren artekoa, berdintasun politikak sustatzeko toki esparruan.
- 8º.- Hitzarmena luzatzea Correosekin 2019ko ekitaldian.
- 9º.- Lankidetzaren hitzarmena NUPekin prestakuntza programa gauzatzeko.
- 10º.- Presidentearen informazioa.
- 11º.- Galde-eskeak.

**1. PUNTUA. Aurreko bilkuraren akta onestea**

Aurreko bilkuraren aktaren kopia igorrita deialdiarekin batera, alde zuzenetik irakurri beharrik gabe,

presidentek galdetu du Batzorde Betearazleko inork oharrik duen haren inguruan.

## ERABAKI DA:

2018ko azaroaren 27an egin bilkuraren akta onestea.

## 2. PUNTUA. Informazioa sektoreko batzordeei eta kontseiluei buruz.

Honako informazio hau eman da egindako batzorde eta kontseilu sektorialen gainean:

- **Nafarroako Adinekoen Kontseilua (2018/02/17).**
  - Txostena egin zaio Gizarte Zerbitzuen Zorroari, zenbait zuzenketa egin ondoren, Nafarroako Kontseiluari igortzeko, horrek behin betiko onetsi dezan.
  - Foru Agindua proiektu bat, dependentzia dutenak etxean gelditzeko laguntza ekonomikoa arautzen duena, zerbitzu bat kontratatuzko: zaintzaile profesionala eta/edo zerbitzuen enpresa.
  - Adinekoen elkarten konfederazio bat eratu da; dagoeneko hiru elkarte daude, eta hori da gutxienezko kopurua.
- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2018/12/17)** Txosten bat egin zen Gizarte Zerbitzuen Zorroa aldatzeko Foru Dekretuaz eta Egun Baliogabeen Foru Dekretuaz.
- **EUPFren Lurralde Kontseilua. (2018/12/18)** EUPFren aurrekontua onetsi zen. Hauteskunde elkarten arazoa landu zen.
- **Garapen Lankidetzarako Nafarroako Kontseilua (2018/12/18).** Deialdiarekin batera igorritako informazioaren berri eman da.
- **NELS Sarea Koordinatzeko Batzordea (2018/12/19).** Deialdiarekin batera igorritako informazioaren berri eman da.
- **Gizabide Batzordea (2019/01/09).** Deialdiarekin batera igorritako informazioaren berri eman da; nabarmentzen da balioen eta jardunbide egokien dekalogoaren onespina.
- **Asbestoa ezabatzeko plan zuzentzailea prestatzeko lan-taldea (2019/01/17 eta 2019/01/20).** Deialdiarekin batera igorritako informazioaren berri eman da.
- **Vianako Printzea Erakundea – Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerririk koordinatzeko foroa. (2019/01/18)** Koordinazio foroa eratu zen. Erabaki zen hura eratzea udalerririk txikien talde bat sortu gogo baitzen NUKFren barnean proposamen kultural egokiak egiteko. Kultura teknikariek proposatuta, erabaki zen beste bi teknikari gehitzea foroari.
- **Nafarroako Desgaitasun Kontseilua. (2019/01/21)** Txostena egin zen Nafarroako Foru Berriko aldaketaz, desgaitasuna dutenak ukitzen dituen neurrian (ondare babestuak deklaratzeko aukera, testamentua egiteko gaitasuna, etab.). Halaber, jakinarazi zen Nafarroako agentziak emandako zerbitzuen zenbait prezio publiko aldatu direla, eta nola dagoen desgaitasun planaren tramitazioa.

- **Toki Araubideko Foru Batzordea. (2019/01/22)** Txostena egin zen Kirol Lanbideetan Hasi eta Aritzeko Foru Legeaz.
- **Eskolatzearen Batzorde Nagusia. (2019/01/28)** Ikastetxea salbuespenez aldatzeko eskaerak baimendu ziren.
- **Nafarroako Gardentasun Kontseilua. (2019/01/28)** Erreklamazioak ebatzi ziren informazioa ukatzeagatik.
- **Toki Prestakuntzarako Batzorde Paritarioa (2019/01/31).** Jakinarazi zen otsailean tramitatu ahal izanen dela Prestakuntza Plan Bateratua, eta apirilean gauzatzen hasi, eta ez urteko azken hiruhilekoan, azken ekitaldi hauetan gertatu den bezala.
- **Nafarroako Ingurumen Kontseilua (2019/02/11).** Kontseilu horretako ordezkariak jakinarazi dute ezen, ehiza debekualdiei eta beste gai arrunt batzuei buruzko txostena azaltzeaz gainera, bilkura lokal berri batean egin zela, zeina boluntario guztien eskura jarri gogo baita. Halaber, jakinarazi zen bidezkoa dela kontseilu horretako kideak berritzea lau urterako, baina, NUKFren ordezkarien kasuan, egungoek jarraituko dute harik eta federazioaren karguak berritzen diren arte.

#### **ERABAKI DA:**

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

### **3. PUNTUA. Ordezkariak izendatzea sektoreko batzordeetan.**

Proposatu da ordezkari hauek izendatzea ondoko batzorde eta kontseiluetan:

- Nafarroako Garraoien Kontseilua.
  - Alfonso Etxeberria Goñi, Eguesibarko Udaleko alkatea.
  - Ordezkoa, Berta Enrique Cornago, NUKFko idazkari nagusia.
- Kultura Zuzendaritza Nagusia eta Nafarroako udalerrriak koordinatzeko Foruaren ordezkariak.
  - Javier Paz Jiménez, Azagrako Udaleko kultura teknikaria.
  - Raúl Iglesias Álvarez, Berako Udaleko kultura teknikaria.

#### **ERABAKI DA:**

Ordezkarien izendapena onestea, adierazi den bezala.

### **4. PUNTUA. Hiri eremuak berreskuratzeko deialdia**

Presidenteak Moriones jaunari eman dio hitza, deialdian zehaztutako Balorazio Batzordeko kidea baita. Deialdiaren balantzea egin du: 57 eskaera aurkeztu dira, zeinek ekarri baitute, guztira, 151 pertsona behin-behinekoz kontratatzea. Aurreko ekitaldian bezala, norgehiagokako araubidean zehaztu da bakoitzak jaso beharreko zenbatekoa; horretarako, emandako diru guztia eskatutako gehieneko diru-laguntza guztiekin zatituta ateratzen den portzentajea aplikatu da, %74 alegia. Era horretan, entitate eskatzaile guztiek hartzen dute parte deialdian eta denei esleitzen zaizkie La Caixa eta Nafarroako Kutxa banku fundazioek emandako 90.000 euroak.

Proposatu da deialdiaren ebazpena onestea Batzordearen txostenean proposatu den moduan.

#### **ERABAKI DA:**

Hiri Eremuak Berreskuratzeko 2018ko deialdiaren ebazpena onestea, akta honen eranskinetako txostenean jasotzen den moduan.

#### **5. PUNTUA.- Langileen enplegu baldintzak 2019rako**

Proposatu da NUKFko langileen 2019ko enplegu baldintzak onestea, zeinak deialdiarekin batera igorri baitira.

Ordainsariei dagokienez, proposatzen da ordainsariak igotzea langile guztiei, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, Nafarroako administrazio publikoetako langileentzat onetsitako moduan (%2,25).

Halaber, proposatu da lanpostuaren osagarria (%20) esleitzea euskara itzultzailea den Mikel Goñiri. Izan ere, urtebeteko epea iragan da lanpostuan hasi zenetik, eta lanean hasi eta urtebete iraganda esleitzen zaie osagarri hori langileei.

Lanpostu hori bete zenean, erabaki zen A mailaren barnean kokatzea, baina ez zitzaion inolako osagarririk esleitu, finkatzen ez zen bitartean. Osagarriaren esleipenak atzera eragineko ondorioak izanen ditu, 2018ko urztailaren 1etik aurrera, egun horretan bete baitzen urtebetea.

Halaber, 2019ko lanaldiaren eta NUKFren bulego ordutegiaren berri eman da; aurreko urteetan bezala mantentzen dira.

Jaiegunen eta parekatuen berri ere eman da.

Hitza eman zaie bertaratutakoei.

Garbaya andreak esan du bere garaian aztertu zela lanpostua B mailan kokatzea, baina azkenean erabaki zela A mailan kokatzea eta horrek iguera handia dakarrela ordainsariei dagokienez.

Presidenteak adierazi du bere garaian aztertu zela gai hori, eta erabaki zen A maila zegokiola itzulpen lanak egiteagatik. Gainera, adierazi du A mailakoa dela, baina hain eginkizun zehatzak izanik ez duela esleiturik A mailako beste lanpostuetako langileek beren eginkizunak direla-eta esleiturik duten %35eko osagarria.

Bozketara jarrita,

Hiru abstentzio izanik euskara itzultzailearentzako %20ko osagarriaren esleipena dela eta.

Gehiengoz,

#### **ERABAKI DA:**

NUKFko langileen enplegu baldintzak onestea akta honi erantsitako proposamenean adierazi bezala.

#### **6. PUNTUA.- Lankidetzarako esparru hitzarmena, zergari buruzko informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko zergaren kudeaketan eta ikuskapenean Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako toki entitateen artean.**

Presidenteak lankidetzaren hitzarmen hori azaldu du, zeinari buruz azalpenak eman baitziren Batzorde Betearazlearen aurreko bilkuran. Lankidetzaren hitzarmenak helburu bikoitza du: batetik, zergen aldetik garrantzitsua den informazioa trukatzea toki entitateen eta Nafarroako Zerga Ogasunaren artean, eraginkortasun handiagoa lortzeko orokorrean eta iruzur fiskalaren kontrako borrokan. Hitzarmenean zehazten da zer informazio eman beharko dioten elkarri bi administrazioek.

Hitzarmenaren beste helburua da Nafarroako Zerga Ogasuna lankidetzan aritzea hala eskatzen dioten udalerriekin, sostengu tekniko eta osagarria eta prestakuntzarako laguntza emateko tributuen kudeaketan eta ikuskapenean. Katastroaren kontserbazio lanetan izan daiteke, edo informazio trukaketaren xede den edozein tributu lokalaren egiaztapenean edo ikuskapenean.

Nafarroako Zerga Ogasunak emanen du lankidetzaren hitzarmen hori, bere giza eta gauza balibideen bitartez edo bere entitate instrumentalei eskatuta.

Hitzarmenaren lehenengo helburuak ez dakarkio inolako kosturik administrazio jasotzaileari. Bigarrena (lankidetzaren hitzarmena eta sostengua), berriz, kostua den heinean Nafarroako Zerga Ogasunerako, toki entitateei jasanaraziko zaio.

Toki entitateek, hitzarmenari atxikitzean, erabaki dezakete informazioa trukatzeko den edo, halaber, lankidetzaren hitzarmenarako. Kasu horretan, Nafarroako Zerga Ogasunak eta udalerriak zehaztu behar dute zein den lankidetzaren xedea eta zer kostu estimatzen duten.

Duda batzuk sortu dira hitzarmenaren bigarren helburua dela eta; izan ere, Batzorde Betearazleko kide batek jakin nahi izan du lankidetzak hori Gobernuaren entitate instrumentalen bidez gauzatzen bada hori lehia desleiala ote den halko jarduketak egiten dituzten beste enpresekin.

Azaldu da udalerrri batek ezin diola zuzenean esleitu Gobernuaren entitate instrumental bati halako sostengu jarduketak egitea, baina, kasu honetan, bi administrazioen arteko erlazioa denez, entitatearentzat gauza bera da zerbitzua ematea bere langileekin edo entitate instrumentalekin. Horregatik, kostua baino ezin da jakinarazi eta, horregatik, zerbitzuak ez du BEZik izanen.

#### **ERABAKI DA:**

Onestea lankidetzarako esparru hitzarmena, zergari buruzko informazioa trukatzeko eta elkarlanean aritzeko zergaren kudeaketan eta ikuskapenean Nafarroako Zerga Ogasunaren eta Nafarroako toki entitateen artean.

#### **7. PUNTUA.- Lankidetzak hitzarmena, Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta NUKFren artekoa, berdintasun politikak sustatzeko toki esparruan.**

Proposatu da Nafarroako Berdintasunerako Institutuarekin lankidetzan aritzeko hitzarmen hori onestea, helburu duena halako politikak sustatzea toki esparruan.

Presidenteak azaldu du lankidetzak hitzarmen hori iaz onetsi zena bezalakoa dela; haren bidez, NUKFk bere gain hartzen du zenbait jarduketa egitea berdintasuna sustatzeko, eta, horretarako, 35.000 euroko ekarpena jasoko duela gehienez, eta 10.000 euroko ekarpena egin beharko duela.

Jarduketa horien artean, zerbitzu bat nabarmentzen da laguntza teknikoa emateko toki entitateei, batez ere berdintasun zerbitzurik ez duten horiei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak sustatzeko.

Halaber, honako hauek aurreikusten dira: alor horretako prestakuntza ekintzak egitea Nafarroako toki entitateetako teknikarientzat nahiz politikarientzat, lan hori egitea toki entitateetan eta aztertzea, hausnarketa estrategikoaren barnean, nola aplikatu berdintasunaren printzipioa zeharkakotasunez NUKFren jarduketa guztietan eta zer eginkizun bete behar duen NUKFk berdintasuna sustatzeko toki entitateetan.

#### **ERABAKI DA:**

Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioaren arteko lankidetzaren hitzarmena onestea, akta honi erantsita dagoena, berdintasun arloko politikak sustatzeko toki esparruan, eta gaitasuna ematea presidenteari hura sina dezan.

#### **8. PUNTUA.- Hitzarmena luzatzea Correosekin 2019ko ekitaldian**

Presidenteak proposatu du Correosekin izenpetutako hitzarmena luzatzea.

Hitza idazkari nagusiari eman dio, eta horrek azaldu du zein diren hitzarmenaren nondik norakoak eta zergatik komeni den beste urtebeterako luzatzea, ezin izan baita beste konponbide bat bilatu toki entitateak profitatu daitezkeen hitzarmenak eskaintzen dituen deskontuez eta fakturazio baldintzez.

Ildo horretan, adierazi da lanean jarraituko dugula, arren eta toki entitateek, izan zenbatekoa dela-eta zerbitzua lizitatu behar dutenak, izan behar ez dutenak, baldintza egokietan jaso dezaten zerbitzua.

Halaber, jakinarazi da lurralde federazio askok izanpeturik dutela halako hitzarmen bat Correosekin.

Gaia Batzorde Betearazlearen onespenera jarrita,

#### **ERABAKI DA:**

Aipatu hitzarmenaren beste luzapen berezi bat eskatzea Sociedad Estatal de Correos y Telégrafos S.Ari, hitzarmenaren eranskinetan zehaztutako baldintzetan jarrai dezan posta eta telegrafia zerbitzuak ematen, 2019ko abenduaren 31ra arte, helburua izanik toki entitateek modua izatea esleipen prozeduren esleipenak gauzatzeko, Posta Zerbitzuari buruzko abenduaren 43/2010 Legeak indarra hartu ondoren, Europako zuzenbidetik eratorritako betebeharrarekin eta kontratazioari buruzko araudiarekin bat.

#### **ERABAKI DA:**

#### **9. PUNTUA.- Lankidetzaren hitzarmena NUPekin prestakuntza programa gauzatzeko.**

Proposatu da NUPekin eta Universidad Sociedad fundazioarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmen hori onestea, ikasleen prestakuntzan laguntzeko, prestakuntza osoa eskainiz praktika espezializatuen bidez, NUKFk helburu hori bete beharrez eskaintza bat egin dezakeen heinean.

#### **ERABAKI DA:**

NUPekin eta Universidad-Sociedad fundazioarekin sinatu beharreko lankidetzaren hitzarmena onestea, akta honen eranskinean jaso dena, eta gaitasuna ematea presidenteari sina dezan.

#### **10. PUNTUA.- Presidentearen informazioa.**

Presidenteak gai hauei buruzko informazioa eman du:

- Bilkura egin duela animaliak babesteko elkarteekin abandonatutako animaliak biltzeko gaia lantzeko. Jakinarazi du Animaliak Babesteko Foru Lege baten proposamena tramitatzen ari dela Parlamentuan une hauetan, eta, erabaki zen bezala, kontseilariari helarazi zitzaion egun egiten denaz bestelako konponbideak bilatu behar direla.
- Bilkura bat egin dela GGKEen Koordinatzailearen Batzorde berriarekin.
- Senatuan aurkeztu dela, Idoia Villanueva senatari autonomikoaren bidez, hauteskunderi buruzko araudia aldatzeko proposamen bat, hauteskunde elkarteek duten arazoa saihesteko asmoz. Senatuaren boletinean argitaratu da, eta martxoaren 5ean edo 6an Senatuaren Osoko Bilkurara joan daiteke, eta gero Kongresura.
- Jardunaldi bat eginen dela otsailaren 25ean, Lurralde Politikaren Ministerioarekin elkarlanean, Errege Dekretu bat azaltzeko, zeinaren bidez laguntzen deialdi bat onetsi baita enplegu, autoenplegu eta ekintzailtza proiektuak finantzatzeko, udalerrien erronka demografikoari aurre egitearren.
- Bilkura bat egin dela Nafarroako ludopatia elkartearekin, non NUKFk bere kezka agertu baitzuen arazo horrek jota dauden gazteenganako. Jakinarazi zen indarreko araudia helaraziko digutela ikusteko zer egin daitekeen.
- Jardunaldi bat egin dela otsailaren 5ean Poliziei buruzko Foru Lege berriaz eta horretan aurreikusitako ordainsarien aplikazioaz. Presidenteak adierazi du jardunaldi horretan agerian gelditu zela nolako eragin ekonomikoa duen eta horrek polizia kidegoak eta agenteak dituzten udaletako ordezkarien artean sortutako nahigabea; horregatik, ulertzen du legea kritikatu behar duela. Proposamen gisa tramitatu denez, ez da lanik egin horren inguruan.  
Goldarazena jauna adierazi du aztertu behar dela lege hori aplika daitekeen administrazio publikoetako langileen ordainsarien igoerak murrizten dituzten beste batzuk kontuan izan gabe. Aplikazioa bera ez dago argi.
- Bilkura bat aurreikusita dagoela heldu den otsailaren 19rako udal txikiekin, proposamenak egiteko kulturaren arloan, eta berriki eratu den Koordinazio Forora igortzeko.  
Albizu jaunak, foro horretako kidea den aldetik, adierazi du udalerrri txikientzako ekimen kulturalak proposatu gogo dituztela, horiek oso zaila baitute halako jardueren deialdiei heltzea.



**ERABAKI DA:**

Jakinaren gainean daudela adieraztea.

**11. PUNTUA.- Galde-eskeak**

Eta aztergai gehiagorik ez dagoela, presidente jaunak bilkura amaitutzat eman du, goiburuan aipatzen den eguneko arratsaldeko zazpiak direnean. Idazkari naizen honek honako akta idatzi eta horren fede ematen dut, eta presidentearekin sinatu dut.

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA,

IDAZKARIA,

Pablo Azcona Molinet jn.

Berta Enrique Cornago and.